

Demokraziaren eta Herritarren Parte-hartzearen Liburu Zuria

Euskadirentzat

Sarrera

Gizarte konplexuetan bizi gara, eta, egokituko bagara, burokrazian oinarritutako kudeaketa-ereduak gainditu beharra daukagu, eta horien ordean eredu arinagoak hartu, sareak sortzeko eta herritarren beharrak entzun, aintzat hartu eta partekatzen gaitasunean oinarrituak.

Gobernantza eraginkorrek kudeaketa-prozesu horizontalagoak ezartzeko jarrera irekia izatea eskatzen du, baita beste erakunde batzuekin taldean lan egitea eta erabaki publikoen prozesuan herritarrak eta gizarte-eragile garrantzitsuak sartzea ere. Eusko Jaurlaritzak herritarrengandik hurbil dagoen Administrazioa bultzatzen du, herritarrek beretzat hartuko dutena eta eraginkortasun, efizientzia, gardentasun eta erantzukizun printzipioen arabera jarduten duena. Printzipio horiek gauzatzeko, ezinbestekoa da Administrazioan parte hartzeko aukerak gero eta handiagoak izatea. Kontu publikoetan parte-hartze handiagoa duen Euskadi eraiki behar dugu, parte-hartzea baita konpromiso kolektiboaren bultzatzailea.

Gizartearen ordezkari izateak ematen duen legitimazioa daukagu botere publikoek, baina herritarrei zuzenean eragiten dieten erabaki garrantzitsuenei dagokienez, elkarriketarako, negoziatzaileentzako eta akordioentzako bide iraunkorrek ezarri behar ditugu haiekin.

Zer da Liburu Zuria?

Liburu zuria esaten dugunean, erakunde edo gobernuaren batek idatzitako agiri ofizial batez ari gara normalean, eta agiri horren helburua izaten da gai zehatzen batek gizartean eragin ditzakeen zalantzak argitzea. Txosten gisa idatzita egoten dira, eta egoeraren eta joeren azterketa sakona egiten ahalegintzen dira, epe luzerako helburuak ezarri ahal izateko asmoz.

Horrela, bada, ohikoa izaten da nazioarteko erakundeek eta ministerioek liburu zuriak idaztea, besteak beste, energiari, enpleguari, ekonomiari, baliabide naturalei, gizarte-laguntzei eta gizartearentzat interes handikoak diren gaiei buruz, oro har. Europar Batasunaren esparruan, Batasuneko herrialdeek elkarrekin jarduteko proposamenak jasotzen ahalegintzen dira liburu zurietan. Liburu horiek Europar Batzordeak egiten ditu, batzorde aholku-emaileen bidez.

Europar Batasuneko liburu zuriak (White Papers) arlo jakin batean ekintza espezifiko baterako proposamenak biltzen dituzten agiriak dira, eta liburu berdeen (Green Papers) ondoren argitaratzen dira, horiek Europa mailan aldi batean kontsultagai eduki ondoren. Liburu berdeek eztabaida publikoaren esparruan aurkeztutako ideiak jasotzen dituzte; liburu zuriek, berriz, politika espezifiko baten proposamen ofiziala biltzen dute.

Zer dakar Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriak?

Herritarren parte-hartzea demokrazia eraikitzeko osagai funtsezkoetako bat da. Izan ere:

- Legitimitatea ematen die gobernuari, eta beren jarduna eraginkorrago eta indartsuago egiten du.
- Politika publikoari legitimitate handiagoa ematen die.
- Aniztasun sozialaren adierazgarri da.
- Interes sozialak agenda publikoan txertatzen laguntzen du.
- Herritarrak erabakiak hartzeko prozesuetan eta bizitza publikoa antolatzeko prozesuetan sartzen ditu.
- Gizarte zibilaren funtzioa indartzen eta balioesten laguntzen du.

Hori guztia dela-eta, beharrezkoa da herritarrei erabakitze-prozesuetan eta bizitza publikoaren antolaketan etengabe parte hartzeko aukera bermatzeko prozesu eta bideak jartzea.

Zer dakar Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriak?

1. Euskadiren Gobernantzan eta Gobernagarritasunean aurrera egitea.
2. Administrazioen eta gizartearen arteko harremanak berraztertzea eta demokratizatzea.
3. Elkarrizketarako bideak eta bitartekaritza-prozesuak ezarri ahal izateko neurri eta prozesuak definitzea eta sustatzea, honako hauen bidez:
 - a. Gizarteko sektore eta eragileekin erlazionatzeko bide irekien bidez;
 - b. Eskaera sozialak kudeatzeko bide berritzaileen bidez;
 - c. Erabaki publikoak hartzeko prozesuetan gizarte-eragileak sartzeko eta solaskide izateko politiken bidez;
 - d. Gizarte zibila ordezkatzeko moduak diseinatuz eta sustatuz.

Administrazioarentzat, hauxe dakar:

- Herritarren aurrean sinesgarritasuna ematea. Horretarako, administrazioak herritarrek gai eta erabaki publikoetan parte hartzeko benetako interesa duela erakusten duten tresna eta bideak jarri behar ditu martxan.
- Bere efizientziarekiko konfiantza sortzea. Herritarren parte-hartzea gauzatu ahal izango da, konfiantza eta tolerantzia giroa sortzen diren heinean bakarrik.

Herritarrentzat hauxe dakar:

- Erantzukizun ariketa. Parte-hartze instantzietan jarduterakoan arduraz jokatzeko, eskubideak baliatuz eta betebeharrak bere gain hartuz.
- Errespetua eta gertutasuna. Administrazioarekiko harremanak errespetuzkoak eta gertukoak izan daitezen baldintzak sortzen laguntzea.
- Konpromisoa

Proiektuaren helburua

Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren oinarriak zehaztu, adostu eta kontrastatzeko bide emango duen prozesu bat diseinatzea eta gauzatzea, honako printzipio hauek oinarri hartuta:

1. Elkarlanean
2. Euskadiko errealitateari egokitua
3. Gauzagarria
4. Kontzeptuala eta praktikoa era berean
5. Herritarrekin konprometitua
6. Eragileen "sarea" sortuko duena
7. Jardunbide egokiak

1. Elkarlanean

Tartean diren eragileekiko interakzio-prozesu bat da, eta oinarrizko premisa adostasuna eraikitzea da.

- Komunikazioa eta negoziazioa funtsezko faktoreak dira prozesu honetan.
- Prozesu honetan aldeek elkarrekin eraiki eta ikasteko konpromisoa hartzen dute. Eraiki eta ikasi beharrekoa modu bakarrean lor liteke: elkarlanean eginda.

2. Herritarrekin konprometitua

- Administrazio modernoak ezin du bere jarduna eta ahalmena zerbitzuak modu eraginkor eta efizientean ematera eta arautzera mugatu; aitzitik, bere herritarren beharrei erantzuna emateaz arduratu behar du, eta kontu eman behar du kudeatzeko moduez eta lortutako emaitzez. Herritar eskubidedunak izateko, Administrazio konpromisoduna behar da.

3. Eragileen "sarea" sortuko duena

- Gizarte eragileekin (herritarrak eta elkarten sareak, politikariak, teknikariak, interes-taldeak) dituen harremanak berraztertu, eta harremanok lidergo partekatua eraikitzen bideratu behar dira, politikarien, teknikarien eta herritarren egiteko, erantzukizun eta eskubideak nahastu gabe, desberdinak baitira. Prozesua formulatu eta aplikatzean, ahalik eta pertsona eta organizazio gehien sartzea proposatzen da; horrela, prozesu gardenagoa izan dadin eta parte-hartzaile guztiak ardura handiagoz jardun daitezten.

4. Euskadiko errealitateari egokitua

- Gure errealitate instituzional, sozial, kultural eta linguistikoari, gure esparru juridikoari eta parte-hartze sozial eta komunitarioan dugun ibilbideari.

5. Kontzeptuala eta praktikoa era berean

- Teorikoa eta kontzeptuala, baina, aldi berean, Liburu Zurian jasotako ekimen bakoitzerako neurri eta ekintza zehatzak dituenak. "Ekintzara bideratua eta ekintza zehatzak dituenak".